

PRENTSA-OHARRA

Sanferminetako 20 kartel, jai-programako mikronarrazioen testuak eta 15.000 Lego-piezekin sortutako entzierroa, gaurtik aurrera, Kondestablen

Sanferminekin loturikoak ikusgai jartzen dituen ohiko erakusketa prestatu du Udalak, eta udaren parte handi batean egongo da zabalik

Kondestablearen jauregian (Kale Nagusia, 2) paratuko dira ikusgai Sanferminetako Kartelen Nazioarteko Lehiaketaren 2018ko edizioan semifinalista izan diren kartelak, horien artean bozketa publikora pasa ziren zortziak eta azkenean herritarrek irabazle izateko aukeratutakoa. Iruñeko Udalak ekoiztutako 20 aleak dira; izan ere, aurtengo, egileek formatu digitalean aurkeztu behar zuten beren proposamena. Bestalde, ohiko bihurtu den erakusketa honek, sanferminei lotua, beste bi osagai izango ditu aurtengo.

Hezkuntza eta Kulturako Alorreko zuzendari Maitena Muruzabalek aurkeztu du bi osagarri horiek dituen proposamena. Alde batetik, formatu handian eta luma-kartoian erreproduzitu dira literatur lan handietan ezkutuan gordetako eta festen programa ofizialerako nolabait berreskuratu diren jaiari buruzko mikronarrazioetako orrialdeak. Bestetik, *Sanferbrick 2018* diorama aurkeztu da, sanferminei buruzko erakusketa txiki bat, Marcos Diagok egina, eta 15.000 Lego-piezaren bitartez irudikatzen duena entzierroa, Udaletxe plazatik igarotzen den tarte horretan. Erakusketa osatzen duten hiru atal horiek abuztuaren 26ra arte bisitatu ahalko dira.

Uztailaren 5era arte, erakusketa zabalik egongo da 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 22:00etara. Sanferminetan, Kondestable itxita egongo da uztailaren 6an eta 7an, eta 8, 10, 11, 12, 13 eta 14an, 11:00etatik 14:00etara egongo da zabalik. Uztaileko gainerako egunetan, erakusketa ikustera sartu ahal izango da astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 22:00etara, eta larunbatetan, 09:00etatik 14:00etara.

Gainerako 19 kartelak

Herritarrek aukera izango dute bertatik bertara ikusteko epaimahai teknikoak aldeztu aurretiko hautaketa baten ostean apirilean aukeratu zituzten 20 kartelak, lehiaketa honetan lehen aldiz egin den fase baztertzailera igaro zutenak. Lehiaketara aurkeztu ziren 332 lanetatik horiek bakarrik inprimatu ziren, eta erakusketa honetan 100 x 70 cm-ko neurriko luma-kartoietan aurkeztu dira.



Epaimahaiburu Kultura eta Hezkuntzako Alorreko Maitena Muruzabal izan zen, eta diseinuaren, komunikazioaren eta arte plastikoen arloko bost profesional aritu ziren epaimahaikide –Álvaro Arévalo, Javier Errea, Liébana Goñi, Virginia Santos eta Mikel Urmeneta–, bai eta Udaleko arte plastikoetako teknikaria, Javier Manzanos. Original horiek hautatzeko, irudi digitala ez ezik, horien osagarri ziren azalpen testuak ebaluatu zituzten, non egileek aditzera ematen baitzuten kontzeptuaren garapen teknikoa eta kartela osatzen duten elementuen hautaketa (konposizioa, kolorea, tipografia, sinbologia, etab.) Lehenengo solairuan (Patio Errenazentistara jotzen duen galerian) ikusgai paratu diren 20 kartelen artean egongo da kartel irabazlea, Adriana Eransus Azpilicueta iruindarraren *Iruña, argien hiria*, bai eta herri-bozketara pasa ziren beste zazpi kartel finalistak ere.

Hitza, irudi grafiko bihurtuta

Aurten, Iruñeko Udalak erabakia hartu du kartel horiekin batera erakusgai paratzeko data hauetan hiria definitzen duen irudi grafikoaren zati bat, hain zuzen ere, festen programa ofizialaren bitartez helarazten dena. Programa Errea Comunicación estudioak ekoiztu du, eta irakurketa proposatzen du irudien orde. Javier Erreak (gaztelaniaz) eta Jon Alonsok (euskaraz) landu dituzte literatura unibertsaleko hainbat egile zein sortzaileraren lanetako lehen orrialdeak, eta jendeari aurkeztu zaizkien mikronarrazioak atera.

Horrela, 100 x 70 cm-ko formatuan ere, irakurketa bi mailatan egiteko aukera aurkezten da, gorriz zirrimarratutako hitzak ere irakurri baitaitezke. 28 mikronarrazio dira, gaztelaniaz eta euskaraz erdiz erdi, zeinen bidez islatu nahi baitira sanferminetako eskailera, suziria, entzierroa, tradizioa, gaua, topaketak, maitasuna, etab.

60ko hamarkadan matematika eta literaturaren arteko jolasa proposatzen zuten abangoardiei zor zaien prozedura baten bitartez, esku-hartzea egin da honako sortzaileen lanetan, besteak beste: egile Cervantes, Goethe, Austen, Dovstoeski, Lessing, Tolstoi, Verne, Shelley, Kafka, Woolf, Munroe... Egileek beraiek horren berri ez zuten arren, beren idatziek Iruñeko jaiak zituzten hizpide, metaliteraturaren bidez.

#SANFERBRICK 2018: LEGO iruindarrak

500 ordu baino gehiago behar izan dira, muntaketa-, diseinu-, doikuntza- eta eraikuntza-lanak tarteko, entzierroa irudikatzen duten 15.000 Lego-pieza ipintzeko. Horietako batzuk mundu zabaleko txoko diferenteetan bilatu behar izan dituzte. Marcos Diago dago horren atzean, Lego-adreiluen zale eta eraikuntza-mota honen afizionatuen Espainiako ALE! kultur elkarteko kidea.

100 figuratxo daude entzierro-diaporama horretan, zeina Kondestableko atondoan erakutsiko baita, kubo formako beira-arasa batean, uztailaren 31 bitarte. Irudikatutako eszenan agertzen dira Udaletxea, bost eta sei solairu bitarteko beste hiru eraikin eta bertako benetako saltokiak, entzierroaren ibilbideak berezko duen harri-zola, hesi bikoitza, telebista-kamerarendako plataforma, turismo-bulego ondoko anbulantzia, zezenak eta, noski, korrikalariak eta Iruñeko jendea, jai-egunetarako behar bezala jantzita. Dena zaindu da, xehe-xehe.





ALE! elkarteak 2009an hasi zen osatzen, Madrilgo Principe Pío tren-geltokian, non aldian behin biltzen baitziren autonomia-erkidego horretako eta Espainiako beste zenbait tokitako Legozaleak; 2010eko abenduan, elkarteak formalki eratu zen. Sortu zenetik, eta ALEbricks.com webgunearen bidez, <http://www.alebricks.com/foro/> elkarlana izan da jardunaren bereizgarri, eta hori horrela, zaleen arteko topaketak antolatu dituzte estatuan, talde-lanean egindako proiektu horien berri elkar emateko. Joan den martxo eta apirilean antolatu zen *Foralbricks 2018*, Nafarroan egindako halako lehen ekitaldia.

20 KARTEL FINALISTAK

- *Matsuri Sawagi*
- *Txupinazoa 2000*
- *Urko jai alai*
- *Zezen mandala jaia*
- *Neskatoak*
- *Don't stop me now*
- *Ezinbestekoak*
- *Banderilla, festaren omenez*
- *Zure txanda*
- *San Ferminen eskailera*
- *Tokiko tradizioa, nazioarteko pasioa*
- *Unetxoak*
- *Iruñean, sanferminen harira*
- *Lurra; hiriburua, Iruña*
- *Iruña, argien hiria*
- *Ibili eta ibili, Iruña bizi*
- *Aurrez aurre*
- *7*
- *Sanferminen zikloa*
- *Bera da jaia*

MIKRONARRAZIOAK LITERATURAN GORDERIK ETA JATORRIZKO LANAK

GAZTELANIAZ

- *Eskailera / Krimena eta zigorra* (F. Dostoievski)
- *Hiri irekia / Printze txikia* (A. De St Exupery)



- Egun handia / *Hiria eta zakurrak* (M. Vargas Llosa)
- Jota Santuari / *Ulises* (J. Joyce)
- *Dibinoa ezinbestean* / *On Kixote Mantxakoa* (M. de Cervantes)
- Berealdiko ajea / *Metamorfosis* (F. Kafka)
- Sorginkeria / *Aliceren abenturak Lurralde Miresgarrian* (L. Carroll)
- Emakumeak eguzki-tendiduan / *Urrezko koaderno* (D. Lessing)
- San Ferminen kapotetxea / *Ehun urte bakardadean* (G. García Márquez)
- Isuna txizontziari / *1984* (G. Orwell)
- Gutxiago falta da! / *Ilunbeen bihotzean* (J. Conrad)
- Amodioa egunsentian / *Dalloway andrea* (V. Woolf)
- Errituala zortzietan puntuan / *Ana Karenina* (L. Tolstói)
- Agur, unaimaizter! / *Denbora galduaren bila* (M. Proust)

EUSKARAZ

- Profitatu beharra / *Harrotasuna eta aurrejuzguak* (J. Austen)
- Betikoak / *Lorategiko festa* (K. Mansfield)
- Edaten dute, gero / *Jockeya* (C. McCullers)
- Amona parrandan / *Jende ona nekez da aurkitzen* (F. O'Connor)
- Lehen urratsa ematea / *Diamantearen plaza* (M. Rodoreda)
- Ezaren zer zati ez duzu ulertu? / *Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak* (A. Munro)
- Mundu osoan ez da halakorik / *Frankenstein* (M. Shelley)
- Erakarmena / *Maitalea* (M. Durás)
- Diosala eguzkiari / *Komedia jainkotiarra* (D. Alighieri)
- Trabestia / *2666: krimenen parte* (R. Bolaño)
- 78ko Sanferminak / *Michel K. bere bizitza, bere garaia* (J.M. Coetzee)
- Giria erori da / *Hirugarren gizona* (G. Green)
- Rocka gauetz / *Mikel Strogoff* (J. Verne)
- Iruñea San Ferminetan / *Gero* (P. De Auxular)

Iruñean, 2018ko ekainaren 29an